

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2021-2023 dirulaguntzaren egitasmo estrategikoaren lehenengoko aldaketa

Udalbatzak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehena. Udalaren 2021-2023 epealdirako diru laguntzen egitasmo estrategikoaren lehenengoko aldaketa onartzea, honako zehaztasunekin:

• IV atalburuan (Kirola arloan dirulaguntzak) sartzea, Aumategi kirol-elkartearentzako diru-laguntzari dagokion partida, honela zehaztuta:

– Aumategi kirol elkarteak.

Aurrekontuko partida: 341.481.016.

Helburuak:

Barrundiako herritarren osasun fisikoa hobetzea, herri-kirola orokortuz.

Ekitaldiak:

2021 – Aurrekontua: 6.000,00 euro.

2022 – Aurrekontua: 17.000,00 euro.

2023 – Aurrekontua: 17.000,00 euro.

• VI. kapituluan (Natura-ingurunerako diru-laguntzak), Etxabarri Urtupiñako kontzejuarentzako diru-laguntzari buruzko partida sartu da, eta honela definitu da:

– Etxabarri Urtupiñako Kontzejua.

Aurrekontuko partida: 321.622.002.

Ekitaldiak:

2021 – Aurrekontua: 1.700,00 euro.

Helburuak:

Energia berriztagarriak sustatzea.

Autosufizientzia energetikoa.

Karbono-aztarna gutxitzea.

BIGARRENA. Honako erabaki hau ALHAOn, Udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web-ean argitaratzea.

Ozaetan, 2021eko azaroaren 11n

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA